

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluak Nafarroako Lurralde Estrategiaren bi urtez behingo hirugarren memoriaren aldeko txostena egin du

Foru Komunitateak bilakaera ona izan duela adierazi du iraunkortasunean, irisgarritasunean eta natura nahiz kulturako ondarearen kudeaketan; lehiakortasunean, gizarte-kohesioan eta polizentrismoan, berriz, hobekuntzak planteatzen dira

Martes, 09 de octubre de 2012

Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua (CSPT) Nafarroako jauregian bildu da gaur goizean lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoechea lehendakari dela eta Sustapeneko kontseilari Luis Zarraluqui, lehendakariorde. Bileraren helburua [Nafarroako Lurralde](#)



Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluaren bilkurako une bat.

[Estrategiaren \(ETN\)](#) bi urtez behingo III. Memoriaren berri ematea da, aurrez iragan uztailearen 19an Gobernuaren erabakiz onartu zena. Ekitaldian parte hartu du ere Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko kontseilari José Javier Esparza-k.

Zehazki, [III. Bi Urtez Behingo Memoria](#)k Nafarroak 2009-2010 aldian izandako bilakaera aztertzen du, ETNk Foru Komunitatearen garapena oinarritzen duen sei printzipio nagusiak erreferentziazat hartuz: lehiakortasuna, gizarte-kohesioa, iraunkortasuna, polizentrismoa, irisgarritasuna eta natura nahiz kulturako ondarearen kudeaketa. Alde horretatik, CSPTren txostenak argitzen du, aipatutako printzipioetatik, Nafarroak hobera egin duela iraunkortasunean, irisgarritasunean eta natura nahiz kulturako ondarearen kudeaketan; lehiakortasunean, gizarte-kohesioan eta polizentrismoan, berriz, hobekuntzak planteatzen ditu, krisi ekonomikaren ondorioz.

ETNren eremu eta azpi-eremuen egiturari dagokionez, aurrerapen handia ikusten da eremu-banatze horren erabileran Nafarroako plan nahiz azterketetan; Kontseiluaren txostenak adierazitako beste aldeko alderdi bat da, oro har, ETNren kontzeptuak direnak, lurralde-oreka esaterako, gero eta gehiago ulertu eta erabiltzen direla beste arlo zientifiko batzuetan. Nolanahi ere, txostenak ere aipatzen du Iruñeko metropoli-arean

nolabaiteko zentraltasuna ikusten dela, eta desiragarria izango zela ere eskualdeko erdialdeko nukleo anitzeko area osatzen duten gainerako hirietan ere sakontzea.

CSPTren txosten hori ETNren III. Bi Urtez Behingo Memoriarekin batera, Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio, eta han eztabaidatu eta kontuan hartuko da, abenduaren 20ko 35/2002 Legearen, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoaren, 33.6 artikuluan jasotzen denez.

Berariazko batzordeak Nafarroako Lurralde Adierazleen Sistemarako eta Talenturako

Halaber, CSPTren osoko bilkurak berariazko bi batzorde sortzea erabaki du zenbait lan egiteko: lehenengoaren helburua Lurralde Adierazleen Sistema hobetzea izango da, Nafarroako Lurralde Bahatokiak (OTN) garatutako tresna lurralde-plangintzako tresnen aplikazioa ebaluatzeko, lurralde-dinamika ikusteko eta etorkizuneko politiken diseinua errazteko.

Berariazko bigarren batzordeak lan egingo du, alde batetik, programan lortutako emaitzen berri emateko eskualdeko talentua atzemateko arloan, Interreg IV C Programaren Brain Flow proiektu europarraren barnean (bertan Nafarroako zenbait erakundek parte hartzen dute), eta bestetik, emaitza horiek bideratzen eta talentu hori atzemateko nahiz horri eusteko arloan dauden politika guztiak bideratzen ere.

Gaur goizeko saioan CSPTren osoko bilkurak ere karguak berritu ditu eta aurkeztu ditu: 2011ko CSPTren jardueren Memoria, 2012rako CSPTren jardueren Programa, 2011ko OTNren jardueren Memoria, eta Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-antolamendurako jardueren Memoria.

Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua

Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua Foru Komunitateko aholkularitza eta partaidetzako organo bat da eragile instituzional, sozial eta ekonomikoek Nafarroako lurralde-garapenaren jarraipenean eta sustapenean lagun dezaten. Beren jarduerak garatzeko, CSPTk Nafarroako Lurralde Behatokiaren (OTN) laguntza du, NASUVINSA, Nafarroako Lurzoru eta Etxebizitza enpresa publikoak kudeatzen duena.

Aurreratu denez, lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea izan da lehendakaria eta Sustapeneko kontseilari Luis Zarraluqui lehendakariordea. Ordezkaritza instituzionalari dagokionez, organo hori osatzen dute: Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparza-k; Lurralde Antolamendurako Batzorde Parlamentarioko bi ordezkari; Lurralde, Mugikortasun eta Etxebizitzaren Antolamenduko zuzendari nagusiak; Sustapen Ministerioko ordezkari batek; Iruñeko alkateak eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko lehendakariak.

Izaera sozio-ekonomikoko erakundeei ordezkatzuz honako hauek daude: Nafarroako Enpresarioen Konfederazioko (CEN) lehendakaria, Unión General de Trabajadores (UGT) eta Comisiones Obreras (CCOO) sindikatu etako idazkari nagusiak (Nafarroan ordezkari handiena duten biak), Nafarroako zonaldeak garatzeko partzuergo nahiz elkarten ordezkarietako lau bokalak eta Nafarroako Kultura Kontseiluko, Nafarroako Ingurumen Kontseiluko eta Nafarroako Turismo Kontseiluko ordezkariak. Osoko bilkuraren organoa osatzen da, Sustapen Departamentuak izendatutako elkargo etako kide eta elkarte profesionalen kideekin, bai eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Nafarroako Unibertsitateko ordezkariekin ere. Azkenik, Kontseilukoak dira ere, lurralde-antolamendurako arloan ezagunak diren bi aditu.

Nafarroaren Lurralde Estrategia (ETN)

2005eko ekainaren 21ean Nafarroako Parlamentuak onartu zuen Nafarroako Lurralde Estrategia (ETN) Nafarroako lurralde-plangintzaren tresna nagusia da datozen hogeita bost urtetarako. Haren eginkizuna

administrazio-maila ezberdinetako plan sektorialak koordinatzea eta bideratzea da estrategia bateratu baten esparruan arabera, Nafarroako lurraldeko politika nahiz jarduera guztien integrazioa eta sinergiak sustatuz.

ETN aurrez aipatutako sei printzipioetan oinarritzen da eta orotara lurralde-garapen iraunkorra osatzen dutenak: lehiakortasuna, gizarte-kohesioa, iraunkortasuna, polizentrismoa, irisgarritasuna, eta natura nahiz kulturako ondarearen kudeaketa. Haietatik abiatuta, ETNk Foru Gobernuko departamentuen jarduerak bideratzen dituzten aukera estrategikoak, helburuak eta ildoak ezartzen ditu. Jarduera horiek sartzen dira, nafarrek beren lurraldeaz egin dezaketean erabileraren ildo nagusiak marrazten dituen lurralde-garapeneko eredu batean. Eredu hori erreferentzia da eskualde-espazioaren gainean eragina duten politika publikoetarako eta eragile pribatuen jardueretarako.

Arlo horretako oinarrizko tresna Lurralde Antolamendurako Planak (POT) dira. Plan horiek udalez gaindiko lurraldea antolatzeko erabiltzen dira ETNen deskribatutako lurralde-ereduaren arabera, eta Nafarroak nahi duena. Nafarroan identifikatutako bost POTen (Pirinioetako Nafarroa, Nafarroa Atlantikoa, Erdialdeko Hirialdea, Erdiguneak eta Ebroko ardatza) zereginak esparru bakoitzean lurraldearen erabilera egokia, arrazoizkoa eta orekatua egitea da; oinarrizko elementuak ezartzea lurraldea antolatzeko eta eratzeko; eta lurralde-erreferentziako esparrua sortzea administrazioen eta erakunde publikoen politikak, planak, programak eta proiektuak egin, garatu eta koordinatzeko, bai eta lurraldean eragina dute partikularren jarduerak garatzeko ere.